

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 853/2022 Erabakia, abenduaren 27koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionario plazen 2022rako enplegu publikoaren eskaintzari

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran, "aurrekontu izendapena duten giza baliabideen beharrianak, administrazio publiko bakoitzak dituen langileekin bete ezin badira, enplegu publikoaren eskaintza eskainiko dira betetzeko".

Bestalde, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20. artikuluan xedatzen duenez, sektore publikoan langile berriak sartzeko, 19. artikuluan Bat e) idatz-zatian jasotako organoak izan ezik, langileen berritze-tasa ehuneko 120koa izango da lehentasunezko sektoreetan, eta ehuneko 110ekoa gainerako sektoreetan.

Aipatutako legeak, halaber, langileen berritze-tasak kalkulatzeko prozedura ezartzen du, kasu bakoitzean gehieneko ehunekoa aplikatzeko. Prozedura horren arabera, berritzapen-tasa nahikoa da eskaintza hau osatzen duten plazak gaitzeko.

Ordezkaritza sindikaleko erakundeekin negoziatzia egin ondoren, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.1.l) artikuluan aurreikusitakoa, akordio honen xedea da Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren 2022rako enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Hor sartzeko, aurrekontu-xedapenek langileak sartzeko ezarritako mugak bete, aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu hutsak, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokirako atzerazintzat jotzen direnak, barne hartuta sarbide libreko sistemaren bidez nahiz barne-sustapeneko sistemaren bidez bete behar direnak, bai txanda orokorraren bidez, bai bi sarbide-sistema horiek barnean hartzen dituzten desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren bidez.

Apirilaren 13ko Diputatuaren Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 11.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Gizarte politiketako Foru diputatuari dagokio, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakari den aldetik, Foru Gobernuaren Kontseiluari proposatzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak proposamena egin ondoren, Erakunde Autonomoaren lan-eskaintza onestea.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionarioen 2022rako lanpostuen lan-eskaintza onartzea. Lanpostu horiek erabaki honi erantzen zaion eranskinean daude jasota.

Bigarrena. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 55. eta 56. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, aipatu eranskinean adierazitako plaza kopurua erreserbatzen da barne-sustapenaren bidez sartzeko, eskala bakoitzaren barruan. Plaza horiek kontuan hartu dira ordezte tasaren arabera deialdian zenbat plaza sartu ahal diren kalkulatzeko, halako moldez non sistema irekiaren bidez beteko baitira barne sustapeneko sistemaren bidez betetzen ez badira.

Hirugarrena. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena) 59. artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria eta aplikatu beharreko araudia betez, lanpostu hutsak erreserbatu dira ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat, betiere hautaketa-probak gainditzen badituzte eta, bere garaian, adierazitako desgaitasun-maila egiaztatzen badute.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak ohiko lanpostuekin batera deituko dira, akordio honen eranskinean ezartzen den bezala, eta deitutako hautaketa-prozeduretan gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira eta hautaprobetan, hala eskatzen duten desgaitasuna duten pertsonentzat, denbora eta bitarteko egokitzapenak ezarriko dira proba horiek egiteko, betiere horrek proben edukia desitxuratzen ez badu eta probetan eska daitekeen gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez badu.

Laugarrena. Aipatutako eranskin horretan zehazten da zein plazek daukaten aginduzko euskararen hizkuntza eskakizuna, ezinbestean bete behar dena lanpostua betetzeko.

Bosgarrena. Oposizio-lehiaketa izango da plazetara sartzeko sistema orokorra.

Seigarrena. Enplegu publikoaren eskaintzan eskaintzen diren plazetara sartzeko prozedura eta baldintzak dagozkien deialdietan ezarriko dira, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren Foru Aginduz onartutako oinarrien arabera, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakariarena.

Erizain laguntzaile lanpostuei dagokienez, lanpostu mota horiek 2021eko lan-eskaintza publikoaren xede izan zirenez eta oraindik gauzatu ez direnez, eta hautaketa-prozesuen arrazionalizazio- eta eraginkortasun-printzipioetan oinarrituta, aipatutako lanpostuak betetzeko eskaintzak batera gauzatuko dira, hautaketa-prozesuko deialdi bakar baten bidez.

Zazpigarrena. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesuak gehienez 3 urteko epean garatu beharko dira, erabaki hau EHAAr argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Zortzigarrena. Erabaki hau eta beraren eranskina ALHAOn argitaratzea, bai eta laburpen bat ere EHAAr.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

EPE 2022 plazak															
TALDEA	AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA eta KLASA	PLAZA	SISTEMA IREKIA						BARNE SUSTAPENENKO SISTEMA					
				TXANDA OROKORRA			DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO GORDETA KO KUPOA			TXANDA OROKORRA			DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO GORDETA KO KUPOA		
							Desgaitasuna duten pertsonak						Desgaitasuna duten pertsonak		
				DDHE	DDGHE	DDGHE	DDHE	DDGHE	DDGHE	DD	DDGHE	DD	DDGHE	DD	DDGHE
A	A1	11	ADMINISTRATZIO OROKORREKO TEKNIKARIA	2											
A	A1	211	SOZIOLOGOA	1						1					
B	A2	212	PERTSONALEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	1										
B	A2	212	KONTRATAZIOKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA		1										
B	A2	212	ERIZAINA	7	4		1	1							
B	A2	212	LANERAKO ZENTROKO ARDURADUNA/PISUETAKO ETA ETXEBIZITZETAKO ARDURADUNA	1	2					1	1				
D	C2	213	SUKALDARI LAGUNTZAILEA	1			1								
				11: Administrazio Orokorra - Teknikariak						DDHE: Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna					
				211: Administrazio Berezia - Teknikaria - Goi-mailako teknikaria						DDGHE: Derrigortasun data gabeko hizkuntza eskakizuna					
				212: Administrazio Berezia - Teknikaria-Erdi mailako Teknikaria											
				213: Administrazio Berezia - Teknikaria - Teknikari laguntzailea											